



HERRI ARTEKOAN, AURKARIAREN ZAIN

Leitzarrak multzoko lehenak dira, eta finalerdietarako txartela lortu dute Arbizu garaitu ostean >7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Astearta
2009-06-09

VIIURTEA 1.723.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Iniziatiba Internazionalista izan da bozkatuena, eta atzetik EAJ eta PSOE

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Botoen %39,7a jaso du Ilk; EAJk %26,1, eta PSOEek %13,4; II eta PSOE igo dira soilik

ALKIZA Inaki Irazabalbeitia Aralarren ordezkaria izango da Europako parlamentuan; «gogotsu» dagoela dio 2-3



Herenegun Alegian egindako festaren une bat. EDUARRAYET

MENDE BAT ATZERA EGINEZ, FESTA POLITA EGIN DUTE HERRITARREK

ALEGIA Duela 100 urte inguru nola bizi ziren irudikatu nahi izan zuten herenegun herritarrek, 'Garai bateko Alegia' ekimenean 5



Atzo eman zioten hasiera, XVI. mendeko jantzien erakusketarekin, Gurean. EE

Oinkarik antolatuta, ekitaldi ugari izango dira aste osoan, Dantza Astean 4



«Europako parlamentuan ezkerrekoa den ahots abertzale eta euskalduna izango dugu»

INAKI IRAZABALBEITIA Aralar alderdiaren eurodiputatu

Alkiza » Aralar alderdia ordezkatzu diputatua izango da Europako parlamentuan; «gogotsu» dagoela azaldu du.



L. GARCIA

ERREDAKZIOA

Independentistak eta ezkertiarak-Europa de los Pueblos koalizioa Euskal Herriko zerrendaburu izan da Inaki Irazabalbeitia Europako parlamenturako hauteskundeetan. Bertan Aralar alderdia ordezkatu du. Jaso dituzten bozken ondorioz, eurodiputatu bat izango du koalizioak, eta berari

ere egokituko zaio Bruselako parlamentuan izatea.

Hauteskundeetan izan diren emaitzen inguruan nolako irakurketa egiten duzue?

Gure koalizioak zuen helburua bete du, alegia, lortu du europarlamentaria izatea. Beraz, ezkerrekoa den ahots abertzale eta euskalduna izango dugu Europako parlamentuan, eta ondorioz, gustura gaude.

Tolosaldeari dagokionez, beharrezakoa izan da Aralarren.

Bai Tolosan, bai eta Hego Euskal Herri osoan ere, egoera nahiko konplikatu dela esan daiteke, faktore asko egon direlako. Horre-

gaitik, gogoeta sakon bat egin beharko nuke datu horien inguruan balantzea egin ahal izateko.

Abstentzio maila altua izan da. Zergatik?

Guretzat datu oso kezagarria da abstentzio maila oso altua izatea hauteskunde hauetan. Horren inguruan gogoetan egin beharko genuke alderdiek, eta baita Europako erakundeek ere. Herritarren erdiak baino gehiagok hauteskunde hauetan bozka ez ematea oso gauza larria da.

Emaitza orokorreari begiratu gero zer azpimarratuko zenuke?

Gure datuez gain, Ipar Euskal Herriari Europako erakundeetako alderdiak

izan dituen emaitza onak ere nabarmendu nahiko nituzke. Izan ere, han gorakada handia izan du, eta bigarren alderdia izatera iritsi da, beraz, oso gustura gaude alde horretatik ere.

Zuen koalizioak eurodiputatu izango du. Zure kasuan hirugarrena zaudete zerrendan, baina, hala ere, Bruselan izango zara.

Bai, hala da. Errotazio bidez egingo dugu. Hala, Oriol Junqueras (Esquerra Republicana de Catalunya) izango da lehendabiziko Europako parlamentuan; ondoren, Ana Miranda (Bloque Nacionalista Galego); gero ni Aralarretik, eta laugarren, Pura Peris (Berdeak). Horretaz gain, Aralarreko militante bat izango dugu han bost urtez laguntzaile moduan.

Nola sentitzen zara erronka berri honen aurrean?

Gogotsu eta indarrarekin nago. Estraburgon, 2013an diputatu izatea ere egokitu zait, eta ordurako ere animatuta nago.

Abstentzio maila altuaren inguruan gogoeta egin behar dela diote alderdiek

Erreakzioak » Europako hauteskundeetan izandako emaitzen inguruan balantzea egin dute alderdiek.

ERREDAKZIOA

Ohikoa den moduan hauteskundeetako emaitzak jakin ordutako, alderdien balantzea iristen da. Hauek esperotakoak edo espero ez zirenak izan daitezke, hau da, emaitza onak jaso dituenaren kasuan gustura egotea normala izan daiteke, eta baita irabazle sentitzea ere; baina beharrezkoa izan duenaren kasuan gustura egoteko arrazoiak ez daudela pentsatu arren, ohikoa izaten da pozik daudela lortutakoarekin eta irabazi dutela bezalakoak entzutea.

Europako parlamenturako hauteskundeak ez dira salbuespena izan, eta ohiko bidetik joan dira balantzeak egiterako orduan. Bestalde, alderdi guztiek errepikatu dutena abstentzio maila altua izan da, eta horren inguruan hausnarketa egitearen beharra azpimarratu dute.

Xabier Zabalo (ezker abertzalea)

«Hurrengo kurtsu politikora indartuta ateraga»

«Nahiko emaitza onak jaso ditugula uste dut. Nafarroan osotara atera diren bozkei emango nieke gehienbat garrantzia. Berri ere hirugarren indarra garelako izan da eta hurrengo kurtsu politi-



Herritar bat botoa ematen herenegun, Iruan. N. LATABURU

kora indartuta ateraga eta ahots garrantzitsua izango garelako erakutsi dugu».

Jokin Bildarratz (EAJ)

«Partaidetza oso eskasa izan dela azpimarratuko nuke»

«Eskualdeko nahiz Euskadiko datuak ikusita, edozein alderdikeren gainetik, partaidetza oso eskasa izan dela azpimarratzekoa da, eta zerbait pentsatu behar dugu hau aldatzeko. Bestalde, Tolosako datuen inguruan, nabarmena da EAJk irabazi egin duela. Abstentzioa handiagoa izan den arren, aurreko europarretan baino boto gehiago jaso ditugu. Azkenik, azpimarratzekoa da Iniziatiba Internazionalistak jaso dituen emaitza



onak; honeki ikusten da biolentziaz aldendu beharra daukatela, zeren horrela eginez gero jendeak sarritu egiten ditu».

Oscar Renedo (PSE-EE)

«Azken hauteskundeetan egonkortu egin gara».

«Balorazio positiboa egiten dugu emaitzei dagokionez. Parte-hartzeari dagokionez, berri, baxua izan da. Ez dakigu zergatik, agian urrutiko ikusten delako edota politikariak ez garelako iristen hautesleengan. Honek hausnarketara eramane behar gaitu; saiakera gehiago egin beharko ditugu Europa zer den eta zertarako den azaltzeko. Tolosako emaitzei dagokionez, onak izan dira. Azkeneko hau-



teskunde ezberdinetan egonkortu egin gara. Hazten eta egonkortuta gauden alderdia gara, eta igotzen jarraituko dugu. Gainontzeko alderdiak jaitzi egin dira eta Iniziatiba Internazionalista indarrarekin sartu da. Egia da ere denak joaten direla bozkatzera. Bi urte falta dira Udal Hauteskundeetarako eta berriak ikusiko dute erakundeetan egon nahi duten edo legearen ertzean».

Onintza Lasa (EA)

«Europa hobeto baten alde lan egiteko ordezkari izango dugu»

«Batetik, gustura gaude, EAJ eta Aralarrek osatzen duten koalizioak ordezkari izango duela Europako parlamentuan. On-



dorioz, Europar indar progresista, ezkertiarra eta independentista izango dugu, Europa sozial eta hobeto baten alde lan egiteko. Beraz, gustura gaude eta eskerrak eman behar ditugu gure aldeko bozka eman duten guztiei. Bestalde, izan den abstentzio maila altua azpimarratuko nuke. Politikoei gogoeta egin beharko genuke, izan ere, Europak eragin oso handia izan arren gure eguneroko bizitzan, badiudi jendeak hori ez duela ikusten. Europako erakundeetan ere inplikatu behar dugu».

Silvestre Zubitur (PP)

«Asko igo gara, nahiz eta bakkirik joan»

«Leitza mailan ikaragarri guttura gaude lortu ditugun emaitzak direla eta, eta Nafarroa mailan zer esanik ez. UPN eta PPren zatiketarekin oso aldapa gora jarri zitzaigun egoera, baina PPn sinesen duen jendea badagoela ikusi da Nafarroan. Asko UPNren jarraitzaile izanagatik ere, PPri ez dietela muzin egiten ikusi da hauteskunde hauetan».



Enrike Torquemada (EB)

«Emaitza txarrak jaso ditugu Tolosan; hobetu beharra dago»

«Tolosaldeari dagokionez emaitzak oso txarrak izan dira, eta argi dago hobetu beharra daukagula. Ez dakigu zergatik eman den beharrezkoa hori, baina alderdiek elkartu, eta horren inguruan hausnarketa egin beharko dugu. Bestalde, emaitza orokorrean inguruan, aurreikuspena bete dugula esan daiteke. Izan ere, bi europarlamentari lortu ditugu, beraz, esperotako ordezkari izango du Ezker Batuak Europar.



Laburrak

Galtzaundiren ludotekan izena emateko aukera dago

TOLOSA » Galtzaundi Euskara Taldeak urtero bezala euskarazko ludoteka antolatuta du uztaileko. Interesatuak datorren astelehena baino lehen eman beharko dute izena. Ludoteka uztailearen Letik 30era bitarte izango da, astelehenezik ostiralera 09:00etatik 13:00etara. Bertan, jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekura txangoak, ipuin kontaketa, San Fermin txiki eguna... egingo dituzte. Ekimena 3tik 10 urtera bitarteko haurrei dago zuzenduta. Izen-ematea Galtzaundiko egoitzan, Nafarroa etorbidea 6 behean, Tolosan egin daiteke.

Bazkaria, Tolosa Kantariaren urteurrena ospatzeko

TOLOSA » Ekainaren azken larunbatean urtebete egingo du Tolosa Kantari kantu-jirak. Aldi honetan, hilero, azken larunbatean, eguerdiko hamabietan jende multzo handia bildu da Tolosako Alde Zaharretik barrena euskal kantuak abesteko. Urteurrena ospatzeko, bazkaria antolatu dute. Hau, hilaren 27an izango da, Abastos plaza barruan, 14:30ean. Txartelak Xirimiri kafetegian eta Laier, Elurra eta Amarozko Ekaitz tabernetan erosi daitezke 25 eurotan.

Argindar mozketak egingo ditu Tolargik bihar goizean

TOLOSA » Tolargi mantenu lanak ari da egiten, hori dela eta, bihar 06:10etatik 07:40etara argi mozketak egingo ditu zenbait tokitan. Esaterako, Eskolapioetan; Beotibarren; Plaza Zaharrea; Soldadu kaleko 1, 3, 8, 10 eta 12an; Zumalakarregi 1, 2, 3, 4, 5 eta 6an; Letxuga kaleko 2, 4, 7, 8 eta 10ean; Aranburun, Kasinoan, Errotan eta Gorosabel 4 eta 6an.

Imanol Aizpururen lanak ikusgai daude GKO Galerian

TOLOSA » Uztailearen 3ra bitartean Imanol Aizpururen lanak ikusgai izango dira GKO Galerian. *Landa eremuak arrakasta handiak* du izena bere bildumak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio bide.** Ezinduentzako Scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurpildun aulki elektrikoak salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia: 605 77 16 07.

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiagorik nahi izanez gero: 616 54 29 60. Kotxearekin edo kotxerik gabe.

Dantza Astearen baitan, buruko paineluak jartzen ikasiko dute gaur

Villabona » Oinkari dantza taldeak antolatuta; Alurren emanaldia izango da ostiralean, eta Korrontziren kontzertua larunbatean.

ERREDAKZIOA

Oinkari dantza taldeak antolatuta, atzotik, Dantza Astea ari dira ospatzen Villabonan. Gaurtik larunbatera bitartean hainbat ekitaldi izango dira Gurea zinemaren eta Olaederra kiroldegian.

XVI. Mendeko jantzien erakusketarekin eman zioten hasiera atzo jardueri, eta larunbatean, Korrontzi folk taldearen kontzertuarekin emango diote amaiera. Bestalde, aipatzekoa da, ostiralean Alurr Ibarako dantza taldeak bere azken ikuskizuna taularako duela Villabonan.

Antolatzaileek bono batzuk atzeratu dituzte, Alurr eta Korrontziren ikuskizunetara, bietara joan nahi dutenentzat. Hauen prezioa 10 eurokoa da. Sarrera berezi hauek erosteko epea gaur amaitzen da. Bestalde, banaka erosiz gero, sei euro ordaindu beharko ditute interesatuak, eta bihurtik aurrera egin dezakete okindegetan.



XVI. Mendeko jantzien erakusketa ikusgai da egun hauetan Gurea zinemako erakusgelan. ESTI EZEIZA

» DANTZA ASTEA

Ekainak 9, gaur

■ **Ikastaroa.** Ramon Garciaeren eskutik: *Buruko paineluak jartzeko moduak.* Gurea Zinemako erakusgelan izango da jardunaldia 20:00etan. Dohainik izango da hau.

Ekainak 11, etzi

■ **Hitzaldia.** Oier Araolaren eskutik, *Zergatik egiten dut dantza tradizionala?* izenburupean, hitzaldia

izango da. Ekitaldi hau ere Gurea zinemaren izango da, 20:00ean.

Ekainak 12, ostirala

■ **Ibarako Alurr dantza taldearen Sua ikuskizuna.** Dantza emanaldi hau Gurea zinemaren izango da, 22:30ean.

Ekainak 13, larunbata

■ **Korrontziren kontzertua.** Folk musika egiten duen talde hau en-

tzuteko aukera izango da Olaederra kiroldegian, 22:30ean. Gonbidatu berezi gisa, bertan izango da Oinkari dantza taldea.

Hilaren 13ra arte

■ **XVI. Mendeko jantzien erakusketa.** Gurea zinemako erakusgelan egongo da jarrita. Ikusgai izango da 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sarrera dohainik da.

Tolargik bere hornidura CHC Energia enpresari ematea erabaki du

Tolosa » Araudi elektrikoaren aldaketa dela eta, elektrizitatea merkaturatzeko enpresak izango dira hornitzaile.

ERREDAKZIOA

Araudi elektriko berria dela eta, uztailearen letik aurrera, elektrizitatea merkaturatzeko enpresak izango dira energia elektrikoaren horniduraz arduratuko direnak. Halaber, tolosarrekin, edozein merkaturatze-enpresa aske aukeratu ahal izango dute. Informazio hau herritarrengana zabaltzeko asmoz, maiatzeko fakturarekin batera gutun bat bidali die bezeroei Tolargik, aldaketa hauen xehetasunak azalduz.

Aldaketa hau aurreikusiz, Tolargik erabaki du bere hornidura CHC Energia enpresak bereganatuko duela. Hori dela eta, uztailearen laurtean, ordura arte Tolargiko bezero izan direnek, aldatu nahi dutela ez badute jakinarazten, automatikoki, CHC Energia konpainiara igaroko dira. Tolargikoek, enpresa honen bitartez, «energia-



Atzo goizean eman zuten aldaketaren berri Tolargiko eta Tolosako Udaleko arduradunek. MARTA SAN SEBASTIAN

ren hornitzaile-zerbitzu oso bat eman nahi dute, betiko enpresarekin jarraitzeak dituen abantaila guztiekin, hots, arreta berezia, gertutasuna eta tratua zuzena.

Honenbestez, merkaturatze-enpresak aukeratzenez dutenei, hemendik gutxira Tolargik bidaliko die 2009ko uztailearen letik au-

rrera CHC Energia enpresari dagozkion kontratu baldintzak. Honekin, data honetatik aurrera ere, Tolargik jarraituko du, eremuko hornikuntzetan lan egiten, kontagailuak irakurtzen eta 24 orduko matxura-zerbitzua ematen. Beraz, hornitzailez aldatuta ere, bezeroek ez dute argi mozketarik ez

eta inolako kostu gehigarririk jasango.

CHC Energia estatuko energia-talderik garrantzitsuenetako den HC Energiak eta CID elkarteko enpresa gehienek osatzen dute. Azken horrek 70 urtetik gora darabizmatza energiaren sektorean, eta 200 enpresatik gora biltzen ditu.

NEREA URBIZU

Lortu dute herritarrek Alegia iraganera eramatea. Ia esan daiteke espero baino jende gehiago hartu zuela parte, modu batera edo bestera. Bazkarian 300 lagun inguru elkartu zirela esatea adierazgarria behintzat, bada. Zeruari begira zeuden alegiarrak, egun nahasia izango zela baitzegoen iragarritza, baina azkenean, lainotuta baina nahiko atsegin esnatu zen igandeko eguna.

Jendeak egun polita igarotzeko aukera izan zuen Alegian, gaur egun ikusten errazak ez diren lanbideak eta ohiturak ikusteko besteak beste. «Polita bezain motza», 10:00etan, egitarauak zioenari jarraituz joan baitzen eguna eta postu guztiak ikusteko denbora nahikoa ez omen zen izan. Bazkaria 14:00etan izatearekin, «motza gelditu zen goiza».

Adin guztietako herritarrek hartu zuten parte, ume eta guraso asko elkarrekin eta zegokion janzkerarekin, gazteak, adinduak... «Herriko jende desberdin asko ibili zen gainera». Herritarrez gain, inguruko herriko lagun batzuk ere jaitsi ziren Alegia mozorrotuta ikustera.

Batez ere, bi ekitaldik izan zuten arrakasta: aurreikusitako ez zuten txondorrek frontoi inguruan, eta ezkonberriekin egindako kalejira. Jende askok Txintzarri plazatik Kalebeherako baselizarainoko bidea egin zuen, bi bikoteen bila joateko. Horretarako, Loatzo musika eskolakoei eta herriko hainbat musikaririk alaitu zuten bidea eta herritarrek ere batzuetan kantatuz. Ezkonberriekin kalejiran herriko plazara iritsi ziren. Txalaparta doinuak eta dantzarien *Agurra* ere eskaini zizkieten han.

Txondorra bezperan egiten hasi ziren eta argazkien bitartez, prozesua nola den azaltzen aritu ziren. «Berezia izan zen». Ez ziren faltatu, noski, igandean aterako zirela esan zuten horiek: artzainak, emakumeak errekan arropa garbitzen, pregoilariak, zintzarri gilea...

‘Garai bateko Alegia’ jaia herritarren parte-hartzearekin igaro zuten eta bertaratu zirenek, duela 100 bat urte nola bizi ziren ikusteko aukera izan zuten; igandeko eguneko xedea ederki ulertu zuten alegiarrak.

Alegia mozorrotuta



Bazkaldu ondoren ere, festa

Bulebarrean, Kultur Etxe inguruan, paseoa... antolatu zituzten gauzak, baina jendetsuen eta giro gehien sortu zen gunea plaza izan zen. Noski, 14:00etan bazkaria zegoen bertan, bi bikote ezkonberrien aitzakia bazuten eta. 300 lagun inguru elkartu ziren paella jateko, besteak beste. «Oso ona zegoen: zaila izaten da hainbeste jenderentzat bazkaria prestatzea. Lana eman zuen baina jendeak gustura jan zuen».

Ondoren erromeria zegoen eta jendea «gustura» aritu zen horretan ere. Eta baita ondorengo orduetan ere, gauean orai ndik duela 100 urteko pertsonaiak ikustea posible zen.

«Asko dira eskertzekoako»

Kultur Batzordeak balantze ofizialik oraindik egin ez badu ere, «oso poziko» dagoela dio, batez ere «herritarren festa izan delako, erabateko protagonista herritarrek izan direlako». Jendea «ilusioz beteta ateratu zen» kalera. «Etxe askotako armarioak astindu dira, herritar gehienak garai batean bezala jantzita ikusi ahal izan ditugu, gustu handiz eta mimoz aritu dira den-dena prestatzen. Traste eta ibilgailu zaharrez josi dugu herria. Egindako lana eta ahalegina sekulakoa izan da».


«Musikari guztiak, bertsolariak, abesbatza, dantza taldekoak, Txintzarrikerak lagunak, ezkonberriak, kalean haruntza eta honuntza ibili diren pertsonaia guztiak, postuak jarri dituztenak, ume jolasez arduratu diren gurasoak, 300 lagunentzat herri bazkaria prestatzeko sukalde lanetan aritu direnak, erromeria berandu arte luzatu duten horiek, inguruko herrietatik eskua botatzera etorritakoak... Asko dira», baina inor ahaztu gabe, denak zoriordu nahi dituzte Kultur Batzordekoak.

Argi dago atzo kalera ateratu ziren alegiarrak «bihurtu zutelako gure herria Garai bateko Alegia». Bide batez, «eskerrak eman baita herriko tabernari eta dendariei ere, Kultur Batzordeak egindako proposamenak aintzat hartu eta inplikatzegaitik».

Herenegun batzuk ia datorren urtean ere festa hau egingo den galdetzen zuten, baina oraindik oso goiz da hori erabakitzeko. Oraingoa igandek utzitako zapo-reaz gozatzeko garaia da.

Igandean jende ugari bildu zuen ekintzetako bat ezkonberriena izan zen. Jendearen janzkeraz gain, tresna bereziek ere ukitu eman zioten herriari. Erdian, suhiltzaileen garai bateko ur ponpa ageri da eta beheran, duela 100 urte inguru arrunta izango zen lanbideetako bat: esne banatzailea asto eta guzti. EDU

ARRAYET



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zizurkil ariko da Euskal Herriko Xiba Txapelketako finalean

Zizurkil » Gipuzkoako kanporaketan Zizurkilek laugarren egin zuen; atzetik geratu ziren Asteasu, Tolosa eta Ibarra.



Beasaingo taldeak bigarren egin zuen. E. IMAZ-GOERRIKO HITZA

ERREDAKZIOA

Zizurkil izango da Euskal Herriko Xiba Txapelketako finalean ariko den eskualdeko herria.

Txapelketako Gipuzkoako kanporaketa larunbatean izan zen Idiazbalen eta bertan eskualdeko Zizurkil, Asteasu, Ibarra eta Tolosa aritu ziren Beasain, Idiazabal eta Igeldorekin batera. Azkenean

Idiazabalek irabazi zuen 872 punturekin, Beasainek 855,5 puntu eskuratu zituen, Igeldok 847 puntu, Zizurkilek 844, Asteasuk 842,5 eta Tolosak eta Ibarrek 837,5 puntu lortuta despenpatea jokatu behar

izan zuten eta Tolosak irabazi zuen.

Lehen lau taldeek Euskal Herriko finala jokatuko dute orain beste kanporaketetan sailkatutakoen aurka.



Pontesen emanaldi hunkigarria

TOLOSA » Dulce Pontes musikari portugaldarrak *Momentos* izeneko bere azken proiektua aurkeztu zuen larunbatean Leidor aretoan. Jende ugari gozatu ahal izan zuen bere betiko abestiek, eta tartean kanta berriak entzuteko aukera ere izan zen. *Mundua Tolosan* zikloaren baitan konzertua izan zen larunbatekoa. NEKA

Doako TAO sistema jartzeko prozesua hasi du jada Udalak

Ibarra » Inguruko herrietako aparkaleku bihurtu ez dadin eta mugikortasuna bermatzea da sistemaren helburua.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak udalerrian TAO sistema jartzeko prozesua hasi duela jakinarazi du. Udala «zerbitzu hau esleitzeko lehiaketa gidatuko duen baldintza-pleguren prestaketa garatzen» ari dela ere azaldu du.

Aldi berean, «udal arduradunak sistema honek bete behar dituen ezaugarriak zein izan behar diren aztertzen ari dira, eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin». Doanekoa izango den TAO sistema uda-

lerrian ipintzeko erabakiak, Ibarrran aparkatzeko dagoen arazoari erantzuten dio.

«Udala ez dago ados herriko kaleak inguruko herrietako ibilgailuen aparkalekuan bihurtu daitezkeen, beste herrietan aparkatzeko tokirik ez dutela eta, askok euren ibilgailuak Ibarrran uzteko duten ohiturarekin», azaldu du. «Herrikoak ez diren pertsonen ibilgailuek aparkalekuak bete eta herriko bizilagunek ibilgailua uzteko tokirik ez aurkitzea gertatu daiteke» eta hori ekiditeko jarriko dute TAO sistema, «mugikortasuna handiagoa izan dadin».

Herrian mugikortasuna hobetzeko helburuarekin aurrera eramandako hausnarketa prozesuaren baitan kokatu du Udalak TAO sistema jartzeko erabakia.

Euskal Kopa irabazi zuten Ibarrako jubenil taldeko jokalariek

Areto-futbola » 3-4 irabazi zuen Ibarrako taldeak Durangon Tecuni Bilboren kontra jokatuako finalean.

ERREDAKZIOA

Ibarrako areto futboleko jubenil taldeak Euskal Kopa irabazi zuen pasa den igandean Durangon jokatuako finalean. 3-4 irabazi zieten ibartarrek Tecuni Bilbo taldeko gazteei eta garaipen honekin Gipuzkoako Liga eta Euskal Kopa denboraldi berean irabaztea lortu dute. Ion Artolaren mutilak, hortaz, fin aritu ziren igandean; Kakik bi gol sartu zituen eta Aitzol eta Txipik bana. Aipatu jokalariek batera Egoitz, Marcos, Etxahun, Goar, Pablo, Iñigo, Eceiza, Andoni eta Joseba ere aritu ziren eta partidu polita eskaini zuten.



Ibarrako gazteak fin aritu dira denboraldi honetan. HITZA



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrek, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, hasierako onepena eman zion honako proiektu honi: TOLOSAKO SAN BLASEKO UR BILTEGI BERRITIK HORNIDURARAKO UBIDEAK BERRITZEKO PROIEKTUA eta proiektu honek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda

Ubidetak berritzea proiektua zenbait baldintzarekin onartu zen.

Proiektua, erasandako lursailen plano takimetrokoa barne, eta hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda, erakusgai egongo dira Tolosako Udaltxean, Hirigintza Departamentuaren bulegoan, (Plaza Zaharra 6-B, 4.) iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost eguneko epean, jabeek eta gainerako interesatuek aztertu nahi badituzte eta, hala nahi izanez gero, alegazioak egin ditzaten.

Tolosan, 2009ko maiatzaren 27an.
ALKATEA.

Eranskina Tolosako San Blaseko ur biltegi berritik hornidurarako ubideak berritzea proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda.

1. Finka:

Titularra: M.^a Teresa Insausti Reguilaga eta beste batzuk.
Helbidea: Aritzio baserria, San Blas auzoa, 20400-TOLOSA.
Izaera katastrala: Landatarra, 03 poligonoa - 043 partzela (Zk. finkoa: 0316801-U)
Zortasuna: 330 m²
Aldi baterako okupazioa: 825 m²

2. Finka:

Titularra: M.^a Teresa Insausti Reguilaga eta beste batzuk.
Helbidea: Aritzio baserria, San Blas auzoa, 20400 Tolosa.
Izaera katastrala: Landatarra, 03 poligonoa - 045 partzela (Zk. finkoa: 0316801-U)
Zortasuna: 72 m²
Aldi baterako okupazioa: 180 m²

Zeberio II Gipuzkoako Foru Aldundiko Sariko finalaurrekoan

Elduain » 40-31 irabazi zioten elduaindarrak eta Aizpurua II.ak Urriza eta Etxaberi; saio bikaina eskaini zuten.

ERREDAKZIOA

Zeberio II.a elduaindarrak eta Aizpurua II.ak Gipuzkoako Foru Aldundiko I Sariko finalaurrekorako txartela eskuratu zuten Azkoitian asteburuan jokatuako partidian.

Urriza-Etxaberen aurkako partida izan zen eta 40-31 irabazi zuten.

Saio bikaina eskaini zuten jokalariek, izan ere, Zeberio II.ak eta Aizpurua II.ak asko izerditu behar izan zuten markagailuan garaipen txikiak lortzeko.

Azken hamar tantoak

Azken hamar tantoetarako ez zegoen bat ere argi zeinek eramango zuten garaipena. Azken tantoetan, hala ere, Zeberio II.a gogor jarri zen eta azkenean partidian 21 tanto

egitea ere lortu zuen. Aizpurua II.a, hala ere, oso ondo aritu zen ere. Urrizak, bere aldetik, 16 tanto egin zituen eta Etxabek, berriz, oso ondo aritu zen errebotean, nahiz eta, sakeetan ez zuen jokaldi bikainik egin, Zeberio II.ari aurre egiteko beharrezkoa zena, bestaldea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko I Sariko final-laurdenak larunbat honetan izango dira Irurako frontoian, 22:00etan. Matxin III-San Miguel eta Uterga-Iriarte izango dira jokalariek.

Multzoko lehen postua eta finalerdietarako txartela

Leitza » Nafarroako Herri Arteko Txapelketan 4-0 irabazi zion Leitzak Arbizuri. Orain aurkariaren zain aurkitzen dira.

ASIER IMAZ

Leitzak 4-0 irabazi zion Arbizuri Nafarroako Herri Arteko Txapelketan. Iragan larunbatean lortutako garaipen argi honekin, Leitzak multzoko lehen postua eta finalerdietarako txartela lortu zuen.

Aurrerako pilotariek asteburuan beste hainbat partida ere jokatu dituzte: Nafar Jokoetan, HITZA Txapelketan eta Lizarra, Elgeta eta Irurtzungo txapelketetan.

Finalerdietan aurkariaren zain

Leitzarrak gustura gelditu ziren Arbizun lortutakoarekin. Hasieran lau partida jokatzekoak baldin baziren ere, Arbizuko infantilak ez ziren lehiara aurkeztu. Ondorioz, Leitzak 18-0 irabazi zuen norgehiagoka hau. Alebinek 18-11 irabazi zuten, jubenilek 22-21 eta seniorrek 22-14.

Aurrera Pilota Eskolako kide den Pakito Sagastibeltzaren esanetan, zain egotea tokatzen zaie orain: «Zalantzan irten ginen eta orain multzoko lehenak gelditu

gara. Matematikoki finalerdietan gauden talde bakarra gara. Azken jardunaldiko azken partida jokatu arte ez dugu jakingo noren aurka jokatuko ditugun finalerdia».

Arbizuren aurka jokatu zituzten hiru partidak honela ikusi zituen Pakito Sagastibeltzak: «12:00ak aldera hasi ginen lehen partidarekin. Alebinek guk uste baino txukunago jokatu zuten. Ez da erraza urte horietan eta Herri Artekoak berarekin duen presioarekin ondo jokatzeari, baina oso txukun ibili ziren. Gero jubenilek jokatu zuten eta bideoan grabatzeko moduko partida izan zen. Jon Jaunarenak izugarriko erakustaldia eskaini zuen. Anaiarekin osatzen du bikotea, baina Xabier kadetea denez maila handiagoko pilotarien aurka jokatu behar izaten du. Pilota gutxi helzen zaizkio eta horiek oso okerrak izaten dira. Beste partidetan lasaia ibili zen baina oraingoan bikote handia zuen aurrean: Ezkurdia, Nafarroako txapelduna, eta Lukin, atzelari oso segurua. Jon Jaunarenak izugarriko lana egin zuen, atzean, txokoa, bi partietan, tantoa bukatzen... 14-20 joan ziren galtzen baina azkenean 22-21 irabazi zuten. Jonek lehertuta amaitu zuen eta beldur ginen hurrengo egunean Elgetan jokatzeko zuelako, baina han 22-6 iraba-

zi zuen. Momentu izugarrian aurkitzen da Jon, diferentzia handia markatzen du. Gero seniorretan nahiko eroso irabazi genuen. Hemen Mikel Iriarte dago eta hau ere oso ongi dabil, nahiko erraz ibili ziren».

Asteburu honetan lehen fase honetako azken partidak jokatu dira. Leitzak atsedean hartuko du, multzoko beste bi taldek, Arbizuk eta Uhartek, elkarren artean jokatuko baitute. Ondoren finalerdia etorriko dira, Pakito Sagastibeltza amesten hasia da, nahiz eta iaizko esperientzia ez duen ahaztu: «Ilusioa sortzen hasi zaigu. Badakigu Labriten jokatu den finalean egotea zaila izango dela. Herri batetik maila altuko lau bikote ateratzea oso zaila delako, ez da ahaztu behar iaiz finalerdietan kaleratu gintuztela. Baina hala ere amesten hasiak gara. Aurrera begira gora behera handiak izango dira».

Lizarran Olano-Tolosa finalean

Nafarroako Herri Arteko Txapelketaz gain beste hainbat txapelketarako partidak jokatu zituzten Aurrerako pilotariek. Hauen artean Lizarrakoa aipatu behar da, Olano-Tolosa bikoteak finalerako txartela lortu baitzuten asteburuan finalerdia 18-5 irabazi ostean.

Arrospide eta Saralegi bigarren gelditu dira Urrezko Aizkoran

Herri kirolak

Leaburuarrak eta leitzarrak amore eman behar izan zuten Floren Nazabal eta Ander Erasunen aurrean.

A. IMAZ

Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako bi final jokatu ziren larunbatean.

Eliteetan Floren Nazabalek irabazi zuen txapela, Anjel Arrospide gaituztu. 19 urte azpikoetan Ander Erasunek Ruben Saralegiri irabazi zion.

Eskualdeetakoak bigarren

19 urte azpikoen mailan bi nafarrek lehia polita jokatu zuten. Gaur egun ordea Ander Erasun leitzarra

baino indartsuagoa da. Erasunek 18:05eko denbora egin zuen eta Saralegi 19:36koa.

Eliteetan bi aizkolaria handi aritu ziren lehian. Arrospidek aurrea hartu zuen baina fisikoki indartsuago agertu zen Nazabal, bosgarren txapela lortuz. Amaieran, Arantzako aizkolaria 22:25eko denbora egin zuen, leaburuarrak berriz 24:28koa.

Josexo Urrutia harrijasotzen

Bi finalen atsedendietan harrijasotzaileak aritu ziren lanean Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan. Bertan zen Josexo Urrutia leitzarra, Izeta IV. arekin batera.

Bien arteko desafioan gazteanagusi zuen, pisu eta forma desberdinetako hiru harri 43 jasoaldi eman baitzizkion. Leitzarrak 40 aldiz jaso zituen hiru harriak.

Leitzarrak ondo Iparraldeko Jokuetan

A. IMAZ

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, pasa de larunbatean, Burlatan Iparraldeko Joku Torneoari hasiera eman zitzaion. Larunbateko jardunaldia lehena izan zen eta 18:00etatik aurrera jokatu zen.

Gogoratu Iparraldeko Joku Torneo honetan hiru jardunaldi jokatu direla. Datorren igandean, ekainak 14ean, 18:00etatik aurrera 2. jardunaldia jokatu da Etxaurin.

Urrutia eta Sukunza

Hiru jardunaldiak jokatu arte ez dira jakingo garaileak nortzuk diren Iparraldeko Jokuetan. Hala eta guztiz ere, lehen jardunaldian leitzarrek itxura ona eman zuten.

Josexo Urrutia harriarekin eta txingekin aritu zen. Harrijasotzen 2. gelditu zen eta txinga eroaten 3. Nagusitasuna erakutsi zuena Migel Anjel Sukunza izan zen. Leitzarrak txinga eroatean 21 plaza egin zituen, txapela jatzeko hautagai nagusia dela erakutsiaz.



Arbizuko eta Leitzako jubenilak: Ezkurdia-Lukin eta Jaunarena anaia. HITZA



Josexo Urrutia eta Migel Anjel Sukunza leitzarrak. HITZA



Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JESUS TOLOSA BERAKOETXEA

JAUNA

Atzo hil zen, Txaraman (Leaburu), 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Maita ditut maita, gure bazterrak, lanbroak ezkututzen dizkidanean...

Zure familia

Hileta: GAUR, ASTEARTEA, Leaburu SAN PEDRO elizan arrotsaldeko ZAZPIETAN izango da.
Helbidea: Ibai-Gain etxea. (Txarama-Leaburu)
Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egongo da, gaur eguerdiko 12:00ak arte.



TXARAMAN, 2009ko ekainaren 9a

JUAN LARRARTE LEUNDA



Ez zara erabat joan, gurekin segituko baitu, beti, zure barruaren isladan izan den eta den, zure irribarre goxoak.



TOLOSA 2009ko ekainaren 9a

Edurenek eta bere familiak



20°
14°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 25°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatu du Bizi Nahi jubilatutako elkartek. Bazkaria Oiarzunen. Izen-ematea, elkartean 28 eurotan (ez bazkideek, 30).
- **Ibarra.** San Bartolome jaietako egitaraurako azal lehiaketa antolatu du Udalak helduentzat eta haurrentzat. 300 euroko saria izango da. Lanak Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira.
- **Tolosa.** Lizardi konpainian eskopetari gisa atera nahi duten neskek telefono zenbaki hauetara deitu behar dute: 600 244 693 edo 686 405 932.
- **Tolosa.** Afari turkiarra eta derviche dantza izango da ostiralean, hilaren 12an, Fronton jatetxean. Txartelak salgai daude Saikin, Fronton eta Egoki tabernetan.
- **Tolosa.** Larraona-Kanpezu (Araba) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 14rako. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).
- **Tolosa.** I. San Joan Mus Txapelketa izango da ekainaren 22an 11:00etatik aurrera Harizpe eta Iturriza elkarrekin bazkideentzat. Izen-ematea, Iturriza elkartean (Euskal Herria plaza) 10:00etatik 12:00etara bitarte. Zortzi erregera jokatu dute txapelketa.
- **Villabona.** Ramon Garciak *Buru-ko paineluak jartzeko moduak* hitzaldia emango du Gurea aretoan 20:00etan, Dantza Astearen barruan.

- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
 - **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Eguzkiarekin sagar erreak prestatzen

AMEZKETA • Eguzkiaren beroarekin funtzionatzen duten labeak egiteko aukera izan zuten igandean Amezketan, Aste Berdearen baitan. Bertan, erakusketa bat prestatu zuten Ingenieros sin fronteras-ek. Hego Ameriketara batez ere erabiltzeko ohitura dago eta salgai ere daude: gerturatu

zen jendeak jakinmina zuen, ez baitzuten sinesten eguzkiaren indarrean. Kartoia eta aluminiozko papera besterik ez da behar hasiera batean. Forma zehatz bat eman behar zaio honi, eta dena prest. Han bertan sagar erreak prestatu zituzten. IDOIA LAHIDALGA

A Agurrak



Zorionak!

Nerea. Zure urtebetetze egunean. 7 muxu etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOKIZ ALDATU GARA, ESKAINTZA BEREZIAK DITUGU!!!!



BULEGO BERRIAK:

Comercial Bulegoak, S.L.
Tolosaldeko Apataerrea Industrialdea
C/Erroizpe Nº5 Grupo E3 - Pabellón 6
Ibarra 20400 - Gipuzkoa

www.bulegoak.com
info@bulegoak.com

Tel: 943 65 24 42
Fax: 943 65 18 32

